

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MANZANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda, eta kobratzeko moduan jartzea, borondatezko epean, 2021eko lehen sei hilekoko ordainagiriak**

Etxeak edateko urez hornitzearen tasa (2021eko lehenengo sei hilekoa) ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda egin da, eta 2021eko irailaren 16an onetsi da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egin da, bat etorri Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoarekin; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2021eko urriaren 1etik 31ra bitartekoa izango da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2021eko urriaren 5ean kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei beren zerga egoitzara bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Manzanos, 2021eko irailaren 16a

*Errejidore-lehendakaria*

*FRANCISCO JAVIER ARGOTE URCELAI*